Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko martxoaren 18a, asteazkena — 52 — Miércoles, a 18 de marzo de 2015

UDAL ADMINISTRAZIOA — 7 — ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

## AZPEITIKO UDALA

*Iragarkia*

Azpeitiko Udalbatzak, 2014ko azaroaren 4an egindako bilkuran, ostalaritzan eta aisialdiko jardueretan arituko diren establezimenduak jartzea arautuko duen Araudiari haserako onarpena eman zion (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2014ko azaroaren 11an argitarauta, 215 zb).

Arauzko jendaurreko informazio epean Elkartu (Gipuzkoako gutxitasun fisikoa duten pertsonen Federazio Koordinatzaileak) alegazio-idatzi bat aurkeztu zuen, eta hori baloratu ondoren, Udalbatzak 2015eko martxoaren 3an egindako bilkuran erantzuna eman eta udal-agintaraua behin betiko izaeraz onartu du.

Toki Errejimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udal Agintarauaren testu osoa argitaratuko da.

Agintarau honek, aipatutako agintarauaren testu osoa argitaratu eta hurrengo egunetik izango du indar.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

### OSTALARITZAN ETA AISIALDIKO JARDUERETAN ARITUKO DIREN ESTABLEZIMENDUAK JARTZEA ARAUTUKO DUEN UDAL AGINTARAUA

### ZIOEN AZALPENA

2005eko otsailaren 23an sartu zen indarrean egungo «Ostalaritzan eta aisialdiko jardueretan arituko diren establezimenduak jartzea arautuko duen udal agintaraua». Alderdi garrantzitsuenen artean, euren sailkapen edo kategoriaren arabera, establezimenduek izan beharreko isolamendu akustikoaren eta zarata- eta bibrazio-transmisioaren baldintzak arautzen zituen, «Eusko Jaurlaritzako lurralde-politika eta garraio sailaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretu» zaharkituak behar bezala definitzen ez zituen kontuak. Bestalde, 25 m-ko gutxieneko distantzia mantentzen zen jarduera berrietarako (aurreko ordenantzan ezarritakoa) beste edozein jarduerarekiko, berria nahiz lehendik zegoena, zegokien kategoria kontuan izan gabe, eta «betetakotzat» jotzen ziren kaleak handitu egiten ziren gaugiroko eremu deiturikoetan establezimenduak ugaltzea saihesteko.

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat «Vending» deituriko establezimenduak, hau da, janariak eta edariak makina automatikoen bitartez saltzen dituztenak, ostalaritzako 2. taldean sartzea zen, establezimendu horiek giroko eremuetan ugaltzea eta gainerako ostalaritza-establezimenduak ixteko ordutik aurrera jendea pilatzea saihesteko.

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 4 de noviembre de 2014, acordó aprobar con carácter inicial la Ordenanza municipal reguladora de la instalación de establecimientos destinados a hosteria y actividades recreativas de Azpeitia (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 215 de 11 de noviembre de 2014).

Durante el periodo reglamentario de exposición pública, por Elkartu (Federación Coordinadora de personas con discapacidad Física de Gipuzkoa) se presentó un escrito de alegaciones, y una vez valorado su contenido, el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 3 de marzo de 2015 ha acordado resolver la alegación presentada y aprobar definitivamente la ordenanza arriba indicada.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la citada Ordenanza.

Esta Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de la publicacón del texto íntegro de la Ordenanza en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE ESTABLECIMIENTOS DESTINADOS A HOSTELERÍA Y ACTIVIDADES RECREATIVAS

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El 23 de febrero de 2005 entró en vigor la actual «Ordenanza municipal reguladora de la instalación de establecimientos destinados a hostelería y actividades recreativas». Como aspectos fundamentales, se regulaban las condiciones de aislamiento acústico, transmisión de ruido y vibraciones que debían reunir los establecimientos de acuerdo a su clasificación o categoría, cuestiones que el obsoleto «Decreto 171/1985, de 11 de junio, del Departamento de política territorial y transportes del Gobierno Vasco» no definía suficientemente. Por otra parte se mantenía para las nuevas actividades la distancia mínima de 25 m (establecida en la ordenanza precedente) con respecto a cualquier otra actividad, nueva o existente, independientemente a la categoría que pertenecieren, y se ampliaban las calles denominadas como «saturadas» para evitar la proliferación de establecimientos en las denominadas zonas de ambiente nocturno.

Otro aspecto a señalar era la inclusión de los establecimientos denominados «Vending», consistentes en la venta de productos de alimentación y bebidas mediante máquinas expendedoras, en el grupo 2 de hostelería para evitar también su proliferación en las zonas de ambiente y la aglomeración de personas más allá del horario de cierre del resto de establecimientos hosteleros.

Establezimenduen gutxieneko azalerak eta garaierak, sarbideak, higiene-zerbitzuen antolaketa eta giro-berritzea ere baldintzapean jartzen ziren. Jarduera eta hura martxan jartzea izapidetzeko prozedura azaltzen zen, eta arau-hausteak tipifikatzen ziren, prozedura zehatzailea ezarriz.

Gero, 2013ko urtarrilaren 1ean, «213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa» sartu zen indarrean. Dekretu horretako lehen xedapen gehigarriak xedatzen du zarata arautzeko udal-ordenantzak dituzten udalek aplikatu beharreko aipaturiko dekretuko aginduetara egokitu behar dituztela 2 urteko epean.

Horregatik, 213/2012 Dekretuko lehen xedapen gehigarria betez, aldatu egiten da indarrean dagoen «Ostalaritzan eta aisialdiko jardueretan arituko diren establezimenduak jartzea arautuko duen udal agintaraua» batez ere isolamendu akustikoari, zaratei eta bibrazioei buruzko artikuluetan. Hala ere, mantendu egiten dira inpaktuko zarataren aurkako isolamenduaren eskakizunak 2., 3. eta 4. taldeetako establezimenduetan, Eusko Jaurlaritzako 213/2012 Dekretukoak baino zerbait murriztaileagoak direnak.

Bestalde, indarreko ordenantzaren aplikazioan pilatutako esperientzia aztertu ondoren, egokia dela pentsatu da testuan hainbat aldaketa egitea edukia eguneratzeko helburuarekin. Aldaketa aipagarrienei dagokienez esan behar da 1. taldea bi azpitaldetan banatu dela, eguneko eta gaueko ordutegia duten establezimenduak bereiztuz eta, aldi berean, «ardandegi» deituriko establezimenduak talde horretan sartuz; distantzien erregimen horretatik kanpo utzi dira familia giroko txokoak, eragozpenak sortzeari dagokionez eragin handirik ez dutela egiaztatu ondoren; lizentzia emateko eta martxan jartzeko izapideak otsailaren 27ko 3/1998 Legearen, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorraren idazketa berrira egokitzen dira, aurretiko komunikazioaren kontzeptua txertatuz.

*1. artikulua. Helburua eta ezarpen esparrua.*

1. Agintarau honen helburua da Azpeitiko udal barrutian arituko diren ostalaritza eta aisialdi-jardueretarako establezimenduak jartzeari, haien funtzionamenduari eta ikuskatzeari dagokionez Udalak izango duen jarduera arautzea.

Taldekako sailkapen hau zehaztu da:

1. taldea: Edariak eta sukalde-lanik egin beharrik gabeko elikagaiak saltzeko baimena duten establezimenduak, hala nola:

— Ardotegia eta establezimenduan bertan kontsumitzeko barra-zerbitzua duten elikagai-komertzioak, dastalekuak, izozkidendak, txokolategiak, txurrodendak, kruasandendak, pasteldegiak, te aretoak, jolas-aretoak eta horiekin parekatu daitezkeenak. Talde honetan sartzen dira familia giroko Txokoak ere.

Talde honetan bi azpisail egin dira, ordutegiaren arabera:

1A taldea: Eguneko funtzionamendu-ordutegia bakarrik duten establezimenduak.

1B taldea: gaueko ordutegia duten establezimenduak.

2. taldea: Edariak saltzeko edo sukaldaritza jarduerak egiteko baimena duten establezimenduak, hala nola:

— Tabernak, ardandegiak, kafe-tabernak, snack-ak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, otordu-etxeak, txokoak, gastronomia-elkarteak, sagardotegiak, joku-aretoak eta horiekin pareka daitezkeenak. Talde honetan sartuko dira egoitzatarako hirilurrean jarriko diren «Vending» motako lokalak ere, janari eta edariak makina banatzaileen bidez saltzekoak, ale-

Se condicionaban también las superficies y alturas mínimas de los establecimientos, accesos, disposición de servicios higiénicos y la renovación ambiental. Se describía el procedimiento a seguir para la tramitación de la actividad y su puesta en funcionamiento, y se tipificaban las infracciones estableciendo un procedimiento sancionador.

Posteriormente, el 1 de enero de 2013 entró en vigor el «Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de Contaminación Acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco». Su disposición adicional primera establece que los Ayuntamientos que dispongan de ordenanzas municipales reguladoras del ruido deberán adaptarlas en el plazo de 2 años a las prescripciones del citado decreto que les sea de aplicación.

Por lo tanto, en cumplimiento de la disposición adicional primera del Decreto 213/2012, se modifica la vigente «Ordenanza municipal reguladora de la instalación de establecimientos destinados a hostelería y actividades recreativas» sobre todo, en la parte del articulado que trata del aislamiento acústico, ruidos y vibraciones. No obstante, se mantienen las exigencias de aislamiento a ruido de impacto en los establecimientos pertenecientes a los grupos 2, 3 y 4, algo más restrictivas que las del Decreto 213/2012 del Gobierno Vasco.

Por otra parte, tras el análisis de la experiencia acumulada en la aplicación de la ordenanza vigente, se ha considerado oportuno introducir una serie de modificaciones en su texto con el fin de actualizar su contenido. Como modificaciones más reseñables, indicar que el grupo 1 se ha dividido en dos subgrupos diferenciando los establecimientos con horario de funcionamiento diurno y nocturno, a la vez que se incorporan al citado grupo los establecimientos denominados «vinotecas»; se excluyen del régimen de distancias los Txokos, exclusivamente de ámbito familiar, tras constatar su escasa incidencia en cuanto a transmisión de molestias se refiere; y se adecuan los trámites de licencia y puesta en funcionamiento a la nueva redacción de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, incorporando el concepto de comunicación previa.

*Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.*

1. Es objeto de la presente Ordenanza la regulación de la actuación municipal respecto a la instalación, funcionamiento e inspección de los establecimientos de hostelería y actividades recreativas que se desarrollen en el término municipal de Azpeitia.

Se establece la siguiente clasificación por grupos:

Grupo 1: Establecimientos autorizados para expender bebidas y alimentos sin que suponga actividad de restauración, tales como:

— Comercios de alimentación que dispongan de vinoteca y servicio de barra para consumo en el propio establecimiento, degustaciones, heladerías, chocolaterías, churrerías, croissanterías, pastelerías, salones de té, salones recreativos y asimilables. También se incluyen en este grupo los Txokos exclusivamente de ámbito familiar.

En este grupo se establece una doble clasificación en función del horario:

Grupo 1 A: establecimientos con horario de funcionamiento exclusivamente diurno.

Grupo 1 B: establecimientos con horario nocturno.

Grupo 2: Establecimientos con autorización para expender bebidas o ejercer actividades de restauración, tales como:

— Tabernas, bodegas, bares, cafés-bares, snacks, restaurantes, asadores, cafeterías, autoservicios, casas de comida, txokos, sociedades gastronómicas, sidrerías, salones de juego y asimilables. Dentro de este grupo se incluyen también los locales denominados «Vending» consistentes en la venta de productos de alimentación y bebidas mediante máquinas expendedo-

gia. Debekatua dago alkoholdun edariak makina banatzaileen bidez saltzea.

3. taldea: Dantzarako pistarik izan gabe, jarduera berezi gisa musika izateko baimena duten establezimenduak, hala nola:

— Taberna bereziak, musikadun tabernak, pubak, disko-tabernak, karaokeak, bingo-aretoak eta horiekin pareka daitezkeenak.

4. taldea: Dantzarako pista eta musika izateko edota ikuskizunak antolatzeko baimena duten establezimenduak, hala nola:

— Dantzalekuak, dantza-aretoak, diskotekak, kafe-antzokiak, ikuskizunak eskaintzen dituzten jatetxeak, jokorako kasinoak eta horiekin pareka daitezkeen jarduerak.

*2. artikulua. Establezimenduen gutxieneko azalerak eta establezimenduen sailkapena, edukieraren arabera.*

1. Lokal batek ordenantza honetan jasotako erabileretarako gutxienez izan beharko duen luze-zabalera erabilgarria ez da izango 50 $m^2$tik beherakoa, familia giroko Txokoena izan ezik, horien luze-zabalera erabilgarriak gutxienez 25 $m^2$koa izan beharko baitu.

2. Establezimenduan sar daitekeen jendearen arabera, ondorengo sailkapena egingo da:

— A maila: 50 pertsonara artean.

— B maila: 51 pertsonatik 100era artean.

— C maila: 101 pertsonatik 200era artean.

— D maila: 200 pertsonatik gora.

3. Establezimendu baten aforoa establezimendu horrek jendearentzako azalera erabilgarrian har dezakeen pertsona kopurua izango da. Kopuru horren neurketa egiteko indarrean den Eraikuntzarako Kode Teknikoak (aurrerantzean EKT/CTE) edo hori ordezkatuko duen araudian jasoak dauden okupazio-dentsitateak erabiliko dira.

Dena dela, jendearentzako gunetik ateratzeko neurketa eta dimentsionamendua egiterakoan lokal hori jendearentzat irekita dagoen orduetan leku horretan arituko diren langileen kopurua ere erantsi beharko da, beti ere pertsona horiek ez badituzte jendearentzat orokorrean dauden irteerez kanpoko beste irteera batzuk.

4. Establezimendu batean jendearentzako azalera erabilgarritzat joko da pertsonak egoteko eta establezimenduaren zerbitzuak gozatzeko den azalera, eta ez dira neurri horretan sartuko salmahai, sukalde, arropa-gordetzeko gela, biltegi, bulego edota sarbide mugatuko beste hainbat gela.

*3. artikulua. Lokalen betebeharrak.*

1. Establezimendu horiek sarbide zuzena izan beharko dute kanpotik, eta ez da onartuko sarrera hori eraikinaren komunikazio-elementu orokorrak erabiliz egitea.

2. Establezimenduaren gutxieneko altuera librea, obra bukatu ondoren, 2,70 metrokoa izango da lokal horretan jendearen erabilerarako azalera erabilgarriaren %60an gutxienez, eta gutxienez 2,50 metrokoa izango da erabilera publikorako edota jendea luzaroan egoteko gainerako zatian. Gela osagarrietan, hala nola biltegi, komun eta abarretan, altuera libre hori 2,30 metrora jaitsi ahal izango da, baina gune horietan ezingo dira pertsonak luzaroan egon. Lanerako lokalen altuera librea, akabera eman ondoren, gutxienez 2,50 metrokoa izango da. Elementu mailakatu edo apaingarririk balego jendea ibiltzeko gunearen alderen batean, leku horretako altuera libreak ezingo du 2,50 metro baino txikiagoa izan.

3. Gutxienez 2,70 metroko altuera izan beharreko betebehar horretatik kanpo geratuko dira jende guztiari irekiak ez dauden izaera pribatuko jarduerak, hala nola txoko, gastronomia-

ras, que se instalen en suelo urbano residencial. Se prohíbe la venta de bebidas alcohólicas mediante máquinas expendedoras.

Grupo 3: Establecimientos con autorización para disponer, como actividad especial, de música sin pista de baile, tales como:

— Bares especiales, bar con música, pubs, disco-bares, karaokes, salas de bingo y asimilables.

Grupo 4: Establecimientos con autorización para disponer de música con pista de baile o realizar espectáculos, tales como:

— Salas de fiesta, salas de baile, discotecas, cafés-teatros, restaurantes con espectáculos, casinos de juego y asimilables.

*Artículo 2. Superficies mínimas de los locales y clasificación de los establecimientos en función del aforo.*

1. La superficie útil mínima de un local destinado para los usos contemplados en esta ordenanza no será inferior a 50 $m^2$, con excepción de los destinados a Txokos de ámbito familiar exclusivamente, cuya superficie útil mínima será de 25 $m^2$.

2. En función del aforo del establecimiento, se establece la siguiente clasificación:

— Clase A: Hasta 50 personas.

— Clase B: 51 a 100 personas.

— Clase C: 101 a 200 personas.

— Clase D: Más de 200 personas.

3. Se entenderá por aforo de un establecimiento el número de personas que es susceptible de acoger en la superficie útil pública. El cálculo de esta capacidad se realizará aplicando las densidades de ocupación establecidas por el Código Técnico de la Edificación (en adelante CTE) o normativa que la sustituya.

No obstante, para el cálculo y dimensionamiento de salidas de la zona pública deberá añadirse el número de operarios del establecimiento que coincidan con el horario de apertura al público, siempre y cuando estos últimos no dispongan de salidas de servicio distintas a las del público en general.

4. Se entenderá por superficie útil pública de un establecimiento, la destinada a la estancia de las personas y disfrute de los servicios del establecimiento, no computándose como tal las superficies destinadas a mostrador, cocina, guardarropa, almacén, oficinas y otras dependencias de acceso restringido.

*Artículo 3. Condiciones de los locales.*

1. Los establecimientos deberán tener acceso directo desde el exterior, no permitiéndose que éste se realice a través de los elementos generales de comunicación del edificio.

2. La altura libre mínima de cada establecimiento una vez acabada la obra será de 2,70 m. en no menos del 60% de la superficie útil del local destinada a uso público y 2,50 m. en el resto de la zona de uso público o destinada a la estancia continuada de personas. En las dependencias auxiliares tales como almacén, aseos, etc., se autoriza que la altura libre se reduzca a 2,30 m., si bien estas dependencias no podrán destinarse a la estancia prolongada de personas. La altura libre acabada de los locales de trabajo será como mínimo de 2,50 m. Si existieran elementos escalonados o decorativos en algún punto del establecimiento comprendido en la zona pública, la altura libre mínima en este punto no será inferior a 2,50 m.

3. Se excluyen de la prescripción de altura mínima de 2,70 m las actividades de carácter privado no abiertas al público en general, tales como txokos, sociedades recreativas o gastronó-

EK\CV GAO-I-2015-02468

edo aisialdi-elkarteak. Honelakoetan, establezimenduak izan beharreko altuera librea 2,50 metrora jaitsi ahal izango da jendeak luzaroan egon behar duen tokietan.

4. Lokalek kea edo aire kutsatua ateratzeko hodiak izan beharko dituzte, haietan egingo den jarduerarako egokituak.

5. Ordenantza honetan aurreikusitako erabileretara bideratu nahi diren lokaletan ez da izango une bakoitzean indarrean den irisgarritasun-araudiak betetzea oztopatuko duen hirigintza-edo arkitektura-oztopo gaindiezinik.

Zentzu horretan, ordenantza honetan adierazitako establezimenduek apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiriguneen, espacio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazi-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak (aurrerantzean 68/2000Dekretua) eta Eraikuntzaren Kode Teknikoak (aurrerantzean EKT) ESI oinarrizko dokumentuan xedatutakoak, edo horiek ordezten dituzten araudiek eskatutako baldintzak bete behar dituzte.

6. Lokalaren kokalekuak Agintarau honetan bertan zehaztua dagoen tarteen jardunbidea beteko du, bai eta Azpeitiko Hirigintza Planeamenduan jasotako jarraibideak ere.

*4. artikulua. Sarrerak.*

1. Establezimenduetarako sarbideek barrurako irisgarritasuna bermatu behar dute, eta kanpoko zoladuraren maila berean egikaritu behar.

2. Mailak eta eskailerak legez aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten arrapalekin osatu behar dira.

3. Establezimendura sartzeko ateen kopurua, antolamendua, eta gutxieneko zabalera eta garaiera libreak EKTen xedapenetara eta indarrean dauden irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoetara edo horiek ordezten dituzten araudietara doituko dira. Kanpoaldera irekitzen diren kasuan, fatxada-lerrotik behar beste atzeratuta egongo dira irekitzean bide piblikoa har ez dezaten.

4. Establezimenduan sartzeko ate guztiek ateak ixteko mekanismoa edo ixteko sistema automatikoa izango dute, eta itxitako posizioan egongo dira jarduera gauzatzen den bitartean.

5. 3. eta 4. mailako establezimenduetan derrigorrezkoa izango da itxitura automatikoko bi ateko instalazio finkoa jartzea, eta bi ateen artean ate-arteko gunea sortu beharko dute. Ate-arteko gune hori aulki gurpildunean ibili behar duen pertsona bat arazorik gabe mugitzeko adinakoa izango da, eta irisgarritasun baldintzen gaineko Arau teknikoek diotena bete beharko du. Lokal horrek jendearentzat sarrera bat baino gehiago baldin badu, gutxienez horietako batek irisgarritasun parametroen arabera diseinatua izan beharko du. Ateak, ahal bada, plano perpendikularretan jarriko dira eta ateen artean ihesak sor ditzaketen edo lokalean sartzen diren pertsonak erortzea eragin dezaketen edo haiei oztopoak jartzen dizkieten bao edota zirrikiturik ez izateko moduan jarri beharko dira. Horretarako, junturen tratamendu egokia egin beharko da.

*5. artikulua. Eskailerak.*

Establezimenduetara edo horien barne-guneetara sartzeko eskailerek, arrapalek eta eskudelek EKT, SS eta ESI oinarrizko dokumentuak eta 68/2000 Dekretua, edota horien ordezko araudiak bete beharko dituzte.

*6. artikulua. Jendearentzako komunak.*

1. Langileek erabiltzeko komunez gain, establezimendu guztiek izango dituzte jendearentzako komunak, behar bezalako osasun eta higiene baldintzetan.

2. Komun horiek lokalaren gainerako guneetatik isolatuta egongo dira, komun aurreko gelaska itxi baten bidez. Pixontziak jartzea derrigorrezko den lokaletan, komun-ontzia dagoen gela-

micas, en cuyo caso la altura libre del establecimiento en las superficies destinadas a la estancia continuada de personas podrá reducirse a 2,50 m.

4. Los locales deberán disponer de conductos de evacuación de humos o aire viciado adecuados al uso que se destina.

5. Los locales que se pretendan destinar a los usos previstos en esta ordenanza no presentarán barreras urbanísticas o arquitectónicas infranqueables para el cumplimiento de la normativa de accesibilidad vigente en cada momento.

En este sentido, los establecimientos contemplados en esta ordenanza cumplirán las condiciones exigidas por el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación (en adelante Decreto 68/2000), y las establecidas por el Código Técnico de la Edificación (en adelante CTE) documento básico SUA, o normativas que las sustituyan.

6. El emplazamiento del local será conforme al régimen de distancias establecido en la presente Ordenanza y a las prescripciones contenidas en el Planeamiento Urbanístico de Azpeitia.

*Artículo 4. Acceso.*

1. Los accesos de los establecimientos deberán garantizar la accesibilidad al interior de los mismos, ejecutándose al mismo nivel que el pavimento exterior.

2. Las gradas y escaleras deberán complementarse mediante rampas que cumplan las condiciones de accesibilidad legalmente previstas.

3. El número y disposición de las puertas de acceso al establecimiento, su anchura y altura libre mínimas se ajustarán a las disposiciones del CTE y Normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad vigentes, o normativas que las sustituyan. En el caso de que abran al exterior estarán retiradas de la línea de fachada lo suficiente, para que su giro no invada la vía pública.

4. Todas las puertas de acceso al establecimiento dispondrán de mecanismo cierrapuertas o sistema automático de cierre, debiendo permanecer en posición de cerradas durante el desarrollo de la actividad.

5. En todas las puertas de acceso de los establecimientos del grupo 3 y 4 será obligatoria la instalación fija de doble puerta con cierre automático constituyendo un vestíbulo de acceso. El vestíbulo tendrá las dimensiones necesarias para que pueda maniobrar un usuario de silla de ruedas, debiendo cumplir las condiciones establecidas por las vigentes normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad. En el caso de que el local disponga de varios accesos al público, al menos uno de ellos deberá estar diseñado según los parámetros de accesibilidad. Las puertas se dispondrán, a poder ser, en planos perpendiculares y deberán instalarse de modo que no existan huecos u holguras que puedan provocar fugas entre puertas, o que puedan provocar caídas u obstáculos para las personas que acceden al local, para lo cual deberá realizarse el tratamiento de juntas adecuado.

*Artículo 5. Escaleras.*

Las escaleras de acceso a los establecimientos o zonas interiores de los mismos, así como las rampas y pasamanos, deberán cumplir con el CTE y con los documentos básicos SI y SUA y con el Decreto 68/2000, o normativas que las sustituyan.

*Artículo 6. Aseos destinados al público.*

1. Independientemente de los aseos destinados al personal, todos los establecimientos dispondrán de aseos abiertos al público en las debidas condiciones de salubridad e higiene.

2. Los aseos estarán aislados del resto del local por medio de anteaseo cerrado. En los establecimientos que sea obligatoria la instalación de urinarios, éstos se colocarán en recinto

EK\CV GAO-I-2015-02468

tik aparteko gune batean jarriko dira, eta debekatua dago komun-aurreko gelaskan jartzea. Konketak komun-aurreko gelaskan jarriko dira, ahal den guztian.

3. Komunetako aparatuen kokapena horiek erosotasunez erabiltzeko moduan egingo da eta elementu bakoitzaren aurrean 0,60x0,60ko toki librea utziko da, gutxienez. Komun-ontzia dagoen gelaren zabalera librea ez da izango 0,80 metro baino txikiagoa. Hori guztia, mugikortasun mugatua duten pertsonentzat egokitutako komun edo bainugelek izan beharreko neurrien kalterik gabe, azken horiek irisgarritasun baldintzei dagokienez indarrean diren Arau Teknikoak bete beharko baitituzte.

4. Komun edo bainugelen kopurua, lokal motaren arabera, honako hau edo handiagoa izango da:

— A maila, 25 pertsonara arte: komun bat eta komun-aurreko gelaska izango ditu, aulki gurpildunean dabiltzan pertsonek erabiltzeko egokitutako komun-ontzi eta konketarekin (hemendik aurrera, «egokitua»).

25 pertsona arteko familia giroko txokoetan komun-ontzi eta konketa dituen bainugela bat izateko baimena emango da, komun-aurreko gelaskarik gabe.

— A maila: 25 eta 50 pertsona artean, bi komun gela, komun-ontzi banarekin (horietako bat, egokitua) eta bientzako komun-aurreko gelaska bateratua, konketarekin.

— B maila: Komun bat komun-ontzi eta konketarekin, eta beste komun bat komun-ontzi, pixontzi eta konketarekin, bientzako komun-aurre bateratuarekin. Komunetako bat eta komun-aurreko gunea egokituak izango dira.

— C maila: Bi komun, elkarrengandik bereiziak: bat emakumezkoentzat, bi komun-ontzi eta konketarekin; eta beste bat gizonezkoentzat, komun-ontzi bat, bi pixontzi eta konketarekin. Sexu bakoitzerako moduluetako bat egokitua izango da.

— D maila: Establezimendu hauetako komun kopurua abuztuaren 27ko 2816/1982 Errege Dekretuan, Ikuskizun Publiko eta Aisialdi-Jardunen Polizia Erregelamenduan, edo hura ordezkatuko duen araudian xedatua dagoena betez ezarriko da. Sexu bakoitzerako hamar modulu edo frakziotik bat eta komun-ontzi multzo bakoitzeko bat egokitua izango da.

5. Komunek EKT/CTEaren baldintzak bete beharko dituzte, eta, balegokio, Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailak jarritakoak.

*7. artikulua. Airea berritzea.*

1. Establezimendu guztiek behartutako aireztatze-sistema izan beharko dute, indarrean den Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan, edo hura ordezkatuko duen araudian, barneko airearentzat zehaztuak datozen eskakizunak beteko dituena. Aireztatze sistemek edota aire girotuarenek sor ditzaketen zarata eta dardara hedapenek ez dituzte gaindituko Ordenantza honetan zehaztuak datozen mugak.

2. Aire girotuaren ekipoetako edo bero-trukagailuetako sistemen hozte-lanetatik sortutako aire hotz edo beroaren irteerak fatxadara egin ahal izango dira, baina beharrezko diren neurriak hartuta zarata, dardara edo kiratsengatik auzokoen artean eragozpenik ez sortzeko.

3. A eta B motako establezimenduetan sortutako aire kutsatua kanpora ateratzea fatxadara egin ahal izango da, hedapen txikiko sareta horizontalen bidez. Lurraren sestra edo errasantetik saretaren azpiko aldera 2,10 metro edo gehiagoko tartea egon beharko du eta aire kutsatua ateratzerakoan sortuko diren zarata, dardara edo kiratsen ondorioz auzokideei eragozpenik sortu gabe.

4. Gainerako lokaletarako, aire kutsatua kanpora ateratzea aparte jarritako hodi bereizi baten bidez egingo da, eraikinaren hegalkinaren gainetik 2 metrora, airea ateratzeko puntuaren eta mugakide dituen eraikinetako bao eta leihoen artean 3 metro baino gehiagoko tartearekin, eta auzokideei zarata, dar-

independiente del inodoro, prohibiéndose su instalación en el anteaseo compartido. Los lavabos se colocarán preferentemente en el anteaseo.

3. La distribución de los aparatos sanitarios de los servicios higiénicos se realizará de forma que resulte cómodo su uso, disponiendo delante de cada elemento de una superficie libre de 0,60 x 0,60 como mínimo. La anchura libre del recinto de inodoro no será inferior a 0,80 m. Todo ello, sin prejuicio de las dimensiones exigibles a los aseos adaptados para personas con movilidad reducida, que deberán cumplir con la normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad vigentes.

4. El número de servicios higiénicos en función de la clase del local no será inferior al siguiente:

— Clase A. Con capacidad hasta 25 personas: Un aseo y anteaseo con inodoro y lavabo accesibles para personas usuarias de sillas de ruedas (en adelante «accesible»).

Se autoriza que los Txokos de ámbito familiar con capacidad hasta 25 personas estén dotados de un aseo con inodoro y lavabo accesibles sin anteaseo.

— Clase A: Con capacidad entre 25 y 50 personas, dos aseos con un inodoro cada uno (uno de ellos accesible) y anteaseo común accesible con un lavabo.

— Clase B: Un aseo con inodoro y lavabo, más otro aseo con inodoro, urinario y lavabo, con anteaseo común. Uno de los aseos y el anteaseo serán accesibles.

— Clase C: Dos aseos diferenciados: Uno para señoras con dos inodoros y un lavabo, y otro para caballeros con inodoro, dos urinarios y lavabo. Uno de los módulos por cada sexo será accesible.

— Clase D: El número de servicios higiénicos se corresponderá con lo establecido en el Real Decreto 2816/1982, de 27 de agosto, Reglamento de Policía de espectáculos y Actividades Recreativas, o normativa que lo sustituya. Un módulo por sexo, de cada diez o fracción, así como un urinario por cada batería de urinarios, serán accesibles.

5. Los servicios higiénicos cumplirán con las condiciones del CTE y las que establezca, en su caso, el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

*Artículo 7. Renovación ambiental.*

1. Todo establecimiento deberá disponer de un sistema o sistemas de ventilación forzada que cumpla con las exigencias de calidad del aire interior establecidas en el vigente Reglamento de Instalaciones Térmicas en los Edificios (RITE), o normativa que lo sustituya. Las trasmisiones de ruido y vibraciones que puedan generar las instalaciones de ventilación y aire acondicionado no superarán los valores límite establecidos en esta Ordenanza.

2. Las salidas de aire caliente o frío procedente de la refrigeración de equipos de aire acondicionado e intercambiadores de calor podrán efectuarse a fachada adoptándose las medidas correctoras necesarias para no ocasionar molestias por ruido, vibraciones y olores en el vecindario.

3. La evacuación del aire viciado procedente de los establecimientos de clase A y B podrá realizarse mediante rejillas horizontales de baja difusión, colocadas en la fachada a una altura no inferior a 2,10 m., medida desde la rasante a la parte inferior de la rejilla. La evacuación de aire viciado a fachada se realizará de forma que no ocasione molestias por ruido, vibraciones y olores en el vecindario.

4. Para el resto de locales, la evacuación del aire viciado se realizará mediante conducto independiente hasta una altura de 2 m. por encima del alero del edificio, a una distancia superior a 3 m. entre el punto de expulsión y los huecos y ventanas de edificios colindantes, sin producir molestias por ruido, vibra-

EK\CV GAO-I-2015-02468

dara edo kiratsengatik eragozpenik sortu gabe. Hodiaren bidez teilatura eramatearen eta fatxaradara ateratzearen arteko soluzio mistoak ere onartuko dira, beti ere proiektuan behar bezala justifikatzen badira.

5. Sukalde, labe, parrilla, plantxa edo antzekoek keak jasotzeko kanpaia izan beharko dute, koipeak eta airean leudekeen solidoak harrapatzeko iragazkiarekin. Material erregaitzezko hodi bereizi baten bidez aterako da airea kanpora, eraikinaren hegalkinaren gainetik 2 metrora eta airea ateratzeko puntuaren eta mugakide dituen eraikinetako bao eta leihoen artean 3 metro baino gehiagoko tartea izango da. Kanpora ateratze hori auzokideei eragozpenik sortu gabe egingo da.

6. Nolanahi ere, sukalde industrialetan keak ateratzeko jarriko den instalazioa indarrean den EKT-CTE edota hori ordezkatuko duen araudiak dioenaren arabera egingo da.

7. Komunetako aireztapena kiratsak atzera lokalaren beste gune batzuetara ez direla etorriko bermatzeko moduan egingo da. Komunetako airea fatxadara atera ahal izango da, artikulu honetako 3. epigrafean zehaztutako irizpideen arabera.

8. Gasezko ur-berogailu eta galdaren banakako instalazioetako errekuntza-gasak kanporatzerakoan indarrean diren sektore-raudietan zehaztutako baldintzak beteko dira.

9. Instalazioen osagai guztiak jardueraren barruan jarriko dira eta debekatua dago fatxadaren kanpoko planotik kanpora aterako diren ekipo edo tresnak jartzea.

10. Ordenantza honetan sartzen diren establezimenduetan leihoak finkoak edota irekiezinak izango dira. Hala ere ametituko da leihoak tolesgarriak izatea 1. taldean sartutako establezimenduetan, oro har, edota 2. taldekoetan, baina azken hauek eraikin bakartuetan eta Udalak behar bezala arrazoitutako irizpidearen arabera gainerako etxebizitza-multzoetatik behar adina isolatuta badaude. Edonola ere, leiho horiek ezingo dira aireztatze-sistematzat hartu, eta 23:00etatik aurrera itxita egon beharko dute, gaueko ordualdi guztian.

11. Debekatua dago lokalaren barrutik kanpoaldera zuzenean zerbitzatzea, espazio publikoetara begira jarritako barrak erabiliz.

12. Tximiniak edota aireztatzeko hodiak material erregaitz eta herdoilgaitzez egingo dira, eta elementuen arteko junturak iragazgaitzak, estankoak izango dira lanean aritzeko presio neurrian. Tximinia fatxadan gora eramango bada, fatxadaren tratamendu bera edo antzekoa erabiliko da hura estaltzeko. Dena dela, hodiak agerian dituzten aukerak ere baimendu ahal izango dira, baina eragina jasoko duten auzokideek berariaz emandako baimena izan beharko dute eta Udal Zerbitzu Teknikoen balorazioa.

13. Proiektuan frogatu egin beharko dira lokala aireztatzeko instalazioen oinarrizko alderdi hauek:

— Aireztatzeko behar diren emariak.

— Lokalean airea kanporatzeko dauden hodi eta tximinien materialen ezaugarriak.

— Hodi bakoitzaren gutxieneko sekzio librea.

— Kanporatutako airearen zirkulazio abiaduraren kalkulua. Gainera, justifikatu egin beharko da hodi horiek igaroko diren etxebizitza edo lokaletara hedatutako zaratak ez dituela gainditzen Ordenantza honetan zehaztutako gehieneko neurriak.

— Airea kanporatzeko hodi guztiak, sistemak lan egiten duen presio neurrira, irazgaitzak, estankoak direla egiaztatzen duen txostena edo egiaztagiria.

14. Lokaletik airea ateratzeko bide moduan ezingo dira erabili eraikinean beste batzuekin batera erabiltzekoak diren barne-hodiak (shuntak). Hodi horiek behe-solairuan edo beheragokoetan dutenean hasiera, zigilatuak izango dira, zarata eta kiratsik ez dadin zabaldu.

ciones y olores en el vecindario. Se admiten soluciones mixtas de evacuación mediante conducto a cubierta y evacuación a fachada, siempre que se justifique debidamente en el proyecto.

5. Las cocinas, hornos, parrillas, planchas y similares dispondrán de campana de captación de humos dotada de filtros para la retención de grasas y sólidos en suspensión, realizando la evacuación por conducto exclusivo y estanco de material incombustible hasta 2 m. por encima del alero de la edificación, a una distancia superior a 3 m. entre el punto de expulsión y los huecos y ventanas de edificios colindantes. La extracción se realizará sin ocasionar molestias en el vecindario.

6. En cualquier caso la instalación para la extracción de humos en las cocinas industriales se ajustará al CTE o normativa que lo sustituya.

7. La ventilación de los servicios higiénicos se realizará de forma que no se produzcan retornos de olores a otras partes del local. La extracción de los servicios higiénicos podrá realizarse a fachada, según los criterios establecidos en el epígrafe 3 del presente artículo.

8. La evacuación de gases de la combustión en instalaciones individuales procedentes de calderas y calentadores a gas cumplirán las condiciones establecidas por la normativa sectorial vigente.

9. Todos los componentes de las instalaciones se ubicarán en el interior de la actividad, quedando prohibida la instalación de equipos o aparatos que sobresalgan del plano exterior de la fachada.

10. En los establecimientos contemplados en esta Ordenanza, las ventanas serán fijas o no practicables. No obstante, en los establecimientos del grupo 1 en general, y los del grupo 2 que estén ubicados en edificios exentos y suficientemente aislados de los bloques de viviendas a juicio motivado del Ayuntamiento, se admitirá que las ventanas sean abatibles. En cualquier caso, dichas ventanas no serán consideradas como sistema computable de ventilación, y permanecerán cerradas a partir de las 23:00 horas durante todo el período nocturno.

11. Se prohíbe servir directamente desde el interior del local utilizando barras orientadas hacia espacios públicos.

12. Las chimeneas o conductos de ventilación se construirán con material incombustible, resistente a la corrosión, y con juntas estancas para la presión de trabajo. Si la chimenea discurre por fachada su revestimiento llevará un tratamiento igual o similar al de la fachada. No obstante, podrán autorizarse soluciones en las que los conductos queden a la vista, siempre que cuente con la autorización expresa de los vecinos afectados, y previa valoración de los servicios técnicos municipales.

13. En el proyecto se justificarán los siguientes aspectos básicos de las instalaciones de ventilación:

— Caudales necesarios de ventilación.

— Características materiales de las chimeneas o conductos de evacuación que dispone el local.

— Sección mínima libre de cada conducto.

— Velocidad de circulación del aire evacuado, justificando que la transmisión de ruidos en las viviendas o locales por donde discurren los conductos no superará los valores máximos permitidos por esta Ordenanza.

— Certificado o informe de la estanqueidad de cada conducto a la presión de trabajo del sistema de extracción.

14. No podrán utilizarse como vías de evacuación de aire del local los conductos interiores tipo «Shunt» de uso compartido en la edificación. Cuando estos conductos arranquen en la planta baja o inferiores, serán sellados a fin de evitar transmisiones de olores y ruidos.

EK\CV GAO-I-2015-02468

15. Lokala aireztatzeko hodien edo aire girotuaren hodien osagaiek, eta haiek estaltzeko erabiliko diren materialek, EKT-CTEak zehazten dituen suaren aurkako erreakzio-baldintzak bete beharko dituzte.

*8. artikulua. Zaratak eta dardarak.*

1. Agintarau honetan sartzen den edozein establezimendu hosgabetu, intsonorizatu egin beharko da bere osotasunean, inguruan dituen etxebizitza eta lokaletara zabalduko diren zarata eta dardarek, edota kanpora aterako diren zaratek, urriaren 16ko 213/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa, edo horren ordez dagoenak, zehaztutako neurriak ez gainditzeko moduan.

213/2012 Dekretuan edo Ordenantza honetan aurreikusiak ez dauden beste lokal batzuetarako, Udalak zehaztuko ditu egoera bakoitzean onartuko diren gehieneko inmisio-neurriak.

Gehieneko inmisio-neurri horiek egiaztatzeko prozedurak urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan, edo horren ordez dagoenean, zehaztuak daudenak izango dira.

2. Eraikinaren egiturara, lokaletara eta inguruan diren etxebizitzetara zaratarik ez dadin hedatu, edozein eratako makineriaren ainguraketak egiteko dardaren aurkako elementuak erabiliko dira. Eguzki-oihal, pertsiana eta haiek ireki-ixteko motorren ainguraketak eraikinaren egituratik isolatzeko euskarri elastikoz egingo da.

3. Establezimenduko edozein instalaziok ez du aipatutako 213/2012 Dekretu horretan zehaztutako neurriak gaindituko dituen zarata edo dardararik hedatuko.

4. Aireko zaratari dagokionez establezimenduek mugakide dituzten etxebizitzekiko izan beharreko gutxieneko isolamendua (DnT,A) eta estandarizatutako inpaktu-zarataren presio-mailaren gehieneko balorea (L'n,Tw) edo (L'n,Tw A) 1. taulan zehaztutakoa izango da.

1. Taula: Taldekako sailkapenaren arabera jarduera berriei eskatu beharreko gutxienekoak:

15. Los materiales que constituyan y revistan los conductos de ventilación ambiental o aire acondicionado deberán cumplir las condiciones de reacción al fuego especificadas por el CTE.

*Artículo 8. Ruidos y vibraciones.*

1. Todo establecimiento contemplado en esta ordenanza deberá insonorizarse en su totalidad, de forma que las transmisiones de ruido y vibraciones a las viviendas y locales colindantes, así como los ruidos emitidos al ambiente exterior, no superen los valores establecidos en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, o normativa que la sustituya.

Para otros recintos afectados no contemplados en el Decreto 213/2012, o en esta Ordenanza el Ayuntamiento determinará en cada caso los valores de inmisión límite admitidos.

Los procedimientos de verificación de los valores límite de inmisión serán los establecidos por el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, o normativa que lo sustituya.

2. Para evitar la transmisión de vibraciones a la estructura del edificio, locales y viviendas próximas, los anclajes de todo tipo de maquinaria se realizarán con elementos antivibratorios. El anclaje de toldos, persianas y sus motores de maniobra se realizará con soportes elásticos y aislantes de la estructura del edificio.

3. Las distintas instalaciones del establecimiento no transmitirán niveles de ruido o vibraciones superiores a los especificados en el mencionado Decreto 213/2012.

4. El aislamiento mínimo a ruido aéreo (DnT,A) y el valor máximo de nivel de presión de ruido de impactos estandarizado (L'n,Tw) o (L'n,Tw A) de los establecimientos respecto a las viviendas colindantes será el establecido en la tabla 1:

Tabla 1: Exigencias mínimas aplicables a las actividades nuevas según la clasificación en grupos.

| *Establezimendu mota*<br>*Tipo de establecimiento* | *Aireko zaratari izan beharreko gutxieneko isolamendua (DnT,A)*<br>*Aislamiento mínimo a ruido aéreo DnT,A* | *Estandarizatutako inpaktuen zarataren presio-mailaren gehieneko balorea (L'n,Tw ó L'n,Tw (A)*)*<br>*Valor máximo de nivel de presión de ruido de impactos estandarizado L'n,Tw ó L'n,Tw (A)** |
|---|---|---|
| 1 A taldea<br>Grupo 1 A | 60 dB(A) | 40 dB |
| 1 B taldea<br>Grupo 1 B | 65 dB(A) | 40 dB |
| 2. Taldea<br>Grupo 2 | 65 dB(A) | 40 dB(A) |
| 3. taldea<br>Grupo 3 | 70 dB(A) | 40 dB(A) |
| 4. taldea<br>Grupo 4 | 75 dB(A) | 40 dB(A) |

(*) Inpaktu-zarata estandarizatuaren presio-mailaren gehieneko balorea 40 dBkoa izango da 1. Taldeko establezimenduentzat, eta 40 dBA (A ponderazioarekin) gainerako establezimenduentzat.

5. Establezimendu bakoitzaren fatxadaren konjuntoak aireko zaratari izango dion isolamendu akustikoaren maila Euskal Autonomia Erkidegoko zarata-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan, edota haren ordezkoan, zehaztutako gehieneko inmisio-balioak kanpoan betetzeko adinakoa izango da. Horretarako kontuan izango da establezimendu bakoitzaren zarata-emisioaren muga, zein taldetakoa den, eta funtzionatzeko baimendutako ordutegia. Kanpoko aldean gain-

(*) El valor máximo de nivel de presión de ruido de impactos estandarizado será de 40 dB para los establecimientos del Grupo 1, y 40 dBA (con ponderación A) para el resto de los establecimientos.

5. El nivel de aislamiento acústico a ruido aéreo del conjunto de la fachada de cada establecimiento será tal que permita cumplir con los valores límite de inmisión en el exterior establecidos por el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, o normativa que la sustituya. Para ello se considerará el límite de emisión sonora de cada establecimiento, la categoría o grupo al que pertenece, y el horario de funcionamiento auto-

EK\CV GAO-I-2015-02468

ditu egingo balira gehieneko inmisio-baloreak, barneko aldean murriztu egingo da inmisio-maila, aipatutako baloreetara etorri arte berriro.

*9. artikulua. Soinua erreproduzitzeko sistemak eta baimendutako emisio-mailak. Intsonorizazio ikerketa.*

1. 1. taldean sartuak dauden lokaletan ezingo da musika-ekiporik jarri, bai ordea irratia, telebista, musika-haria edo lokalean zabaldutako bozgorailu bidez aritzen den potentzia akustiko txikiko soinu-erreproduzigailuak. Edonola ere, jarritako bozgorailuak ez dira 6 hazbete baino handiagoak izango, eta ez da baimenduko frekuentzia azpigrabeak erreproduzituko dituzten bozgorailuak jartzea. Gainera, ekipo horien soinu-emisio globalaren maila 75 dB(A)ko neurrira mugatuta egongo da.

2. 2. taldean sartuak dauden lokaletan ezingo da musika-ekiporik jarri, bai ordea irratia, telebista, musika-haria edo lokalean zabaldutako bozgorailu bidez aritzen den potentzia akustiko txikiko soinu-erreproduzigailuak. Edonola ere, jarritako bozgorailuak ez dira 6 hazbete baino handiagoak izango, eta ez da baimenduko frekuentzia azpigrabeak erreproduzituko dituzten bozgorailuak jartzea. Gainera, ekipo horien soinu-emisioen maila 80 dB(A)ko neurrira mugatuta egongo da.

3. 3. taldean sartuak dauden lokaletan, musika-ekipoen edota soinua erreproduzitzeko sistemen soinu-emisioaren muga horren eraginik handiena jasango duen etxebizitzarekiko lokal horrek duen aireko zarataren isolamendu akustikoaren indizea 20 dB(A) handituta izango da. Gainera, ezingo dira 95 dB(A)k gainditu, lokalaren isolamenduak onartzen badu ere.

4. 4. taldean sartuak dauden lokaletan, musika-ekipoen edota soinua erreproduzitzeko sistemen soinu-emisioaren muga eraginik handiena jasango duen etxebizitzarekiko lokal horrek duen aireko zarataren isolamendu akustikoaren indizea 20 dB(A) handituta izango da, eta gainera ezingo dira 105 dB(A)k gainditu.

5. Soinua erreproduzitzeko edozein aparailu mota (irratia, telebista, musika-haria edota potentzia akustiko txikiko soinu-erreprodukzio-ekipoa, musika ekipoa) duten establezimendu guztietan derrigorrezkoa izango da zarata-mailentzako mugatzaile erregistratzaile frekuentzial bat jartzea, zarata hori oktabetako tarteen arabera mugatzeko gauza izango dena, lokalaren isolamendu kurbaren arabera, eta neurtutako zarata-mailen eta gertatutako gorabeheren (ekipoaren manipulazioak barne) informazioa gutxienez hilabetean gordetzeko aukera emango duena. Mugatzaile erregistratzaile horren horniketa egitea, jartzea eta mantentzeko gastuak jardueraren titularraren kontura izango dira.

Ekipo mugatzaile horrek bermatu egin beharko du Ordenantza honetan zehaztutako zarata hedapen edo inmisio mugak gainditzea ezinezko izango dela, hala kanpo aldean nola barruan.

Ekipo mugatzaile eta erregistratzaileak telekudeaketarako sistema izan beharko du, Udalaren ikuskaketa zerbitzuek aukera izan dezaten zarata-emisioaren baloreak zuzenean egiaztatzeko, erregistratutako balioak deskargatzeko eta funtzionatzeko parametroak konfiguratzeko.

Jarri behar den ekipo mugatzaile-erregistratzaile horrek Udalaren onarpena izan beharko du aurretik. Jardueraren titularrak ekipo hori mantentze eta kalibratze plan batean sartu beharko du, eta horretarako eskumena duen teknikari edo enpresak urtero egiaztatu beharko du. Egiaztatze hori urteroko egiaztatze-agiri baten bidez frogatu beharko da.

6. Lokala zaratatik isolatzeko erabilitako materialek EKT-CTEan, edota horren ordezko araudian, zehaztuta datozen baldintzak bete beharko dituzte.

7. Baimen-eskariarekin batera ekarri behar den proiektu teknikoarekin batera hosgabetze, intsonorizazio azterlana aurkeztuko da, horretarako eskumena duen teknikariak edo akustikan

rizado. En caso de superarse los valores límite de inmisión en el exterior se reducirá el nivel de emisión interior hasta resultar compatible con los valores referidos.

*Artículo 9. Sistemas de reproducción sonora y niveles de emisión autorizados. Estudio de insonorización.*

1. En los locales correspondientes al Grupo 1 no se autoriza la instalación de equipos de música que no sean radio, televisión, hilo musical o equipo de reproducción sonora de baja potencia acústica con altavoces distribuidos por el local. En cualquier caso, los altavoces instalados no serán superiores a 6 pulgadas y no se permitirá la instalación de altavoces que reproduzcan frecuencias subgraves. Además, el nivel de emisión sonora global de estos equipos estará limitado a 75 dB(A).

2. En los locales correspondientes al Grupo 2 no se autoriza la instalación de equipos de música que no sean radio, televisión, hilo musical o sistema de reproducción sonora de baja potencia acústica con altavoces distribuidos por el local. En cualquier caso, los altavoces instalados no serán superiores a 6 pulgadas y no se permitirá la instalación de altavoces que reproduzcan frecuencias subgraves. Además, el nivel de emisión sonora de estos equipos estará limitado a 80 dB(A).

3. En los establecimientos pertenecientes al Grupo 3 el límite de emisión sonora de los equipos de música o de los distintos sistemas reproductores de sonido será el resultante de incrementar 20 dB(A) el índice de aislamiento acústico a ruido aéreo del local con respecto a la vivienda más afectada, no pudiendo superar los 95 dB(A) aunque el aislamiento del local lo admita.

4. En los establecimientos pertenecientes al Grupo 4 el límite de emisión sonora de los equipos de música o de los distintos sistemas reproductores de sonido será el resultante de incrementar 20 dB(A) el índice de aislamiento acústico a ruido aéreo del local con respecto a la vivienda o local colindante más afectado, no pudiendo superar los 105 dB(A).

5. En todos los establecimientos que dispongan de cualquier tipo de de aparato de reproducción sonora (radio, televisión, hilo musical o equipo de reproducción sonora de baja potencia acústica, equipo de música) será obligatorio instalar un limitador registrador frecuencial de los niveles sonoros, capaz de limitar la emisión sonora por bandas de octava en función de la curva de aislamiento del local, y que permita guardar la información de los niveles sonoros medidos y de las incidencias acaecidas, incluidas manipulaciones del equipo, como mínimo durante un mes. Los costes de suministro, instalación y mantenimiento del limitador registrador correrán a cargo del titular de la actividad.

El equipo limitador deberá garantizar la imposibilidad material de superar los límites de emisión e inmisión de ruido establecidos en esta Ordenanza, tanto en el ambiente interior como exterior.

El equipo limitador y registrador deberá llevar incorporado un sistema de telegestión que permita a los servicios de inspección del Ayuntamiento comprobar los valores de emisión sonora en tiempo real, descargar los valores registrados y configurar los parámetros de funcionamiento.

El equipo limitador registrador a instalar deberá contar con la aprobación previa del Ayuntamiento. El titular de la actividad incluirá el citado equipo en un plan de mantenimiento y calibración debiendo verificarse anualmente por técnico o empresa competente en la materia. Dicho extremo se acreditará mediante un certificado de verificación anual.

6. Los materiales utilizados para el acondicionamiento acústico del local deberán cumplir con las condiciones especificadas en el CTE o normativa que lo sustituya.

7. En el proyecto técnico que ha de acompañar a la solicitud de licencia se incorporará un estudio de insonorización realizado por técnico competente o empresa especializada en

EK\CV GAO-I-2015-02468

espezializatutako enpresa batek egina, zarata eta dardara-hedapena sor dezaketen iturri guztiak aurreikusiko dituena, eta bertan justifikatuko da, beharrezko diren kalkuluekin, ordenantza honetan eskatutako isolamendu akustikoak betetzen direla.

8. Hosgabetzeko, intsonorizatzeko lanak egindakoan, eta lokalaren apainketa eta azken errematea eman aurretik, titularrak egiaztatu egin beharko du betetzen direla Ordenantza honetan eskatzen diren isolamendu-mailak. Udalak txosten akustiko bat aurkeztea eskatu ahal izango du, lanen azken errematea egin aurretik.

*10. artikulua. Jarduera izapidetzea eta abian jartzea.*

1. Lizentziak izapidetzea, aurre komunikazioa edo erantzukizunpeko aitorpena «Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean», edo balegokio, «Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 26ko 12/2012 Legean» eta haiek osatzen edo ordezkatzen dituzten gainerako lege-xedapenetan zehaztua datorren prozedura betez egingo da.

2. Dena dela, proiektua aurkeztu aurretik, edota 3/1998 Legean zehaztutako kontsultaren tramitazio aldian, Udalak eskatu ahal izango du froga dadila agiri bidez, horretarako eskumena duen teknikariak sinatuta, dagokion lokalak betetzen dituela jarri nahi den jarduera hori jartzeko bete behar diren aurrebaldintzak. Baldintzok honako hauek izango dira:

a) Aireztatzea egiteko hodiei dagokienez:

* Aireztatzeko behar diren emariak.

* Lokalean airea ateratzeko dauden hodi eta tximinien materialak eta haiek egiteko ezaugarriak.

* Hodi bakoitzaren gutxieneko sekzio librea.

* Kanpora ateratako airearen zirkulazio abiaduraren kalkulua. Gainera, justifikatu egin beharko da hodi horiek igaroko diren etxebizitza edo lokaletara hedatutako zaratak ez dituela gainditzen Ordenantza honetan zehaztutako gehieneko neurriak.

* Hodi horiek irazgaitzak, estankoak direla dioen egiaztagiri edo txostena.

b) Lokalaren altuera: Lokalak hasieran duen altuera Agintarau honek eskatzen dituen altuerak izateko adinakoa dela justifikatzea, lokal horretan hosgabetzeko, intsonorizatzeko lanak egin eta apaintzeko sabaia jarri ondoren.

c) Irisgarritasuna: Irisgarritasun arauak bete ahal izateko, lokalera sartzeko hirigintza- edo arkitektura-oztopo gaindiezinik ez duela dioen egiaztagiria.

3. Jarduerari ekin aurretik aurkeztu beharreko aurrekomunikazio edo erantzukizunpeko aitorpenean aurkeztu beharreko agirien artean, honako hauek aurkeztuko dira:

— Jarduera eta/edo instalazio horiek eraikitzeko proiektuarekin eta aurkeztutako dokumentazio teknikoarekin bat datozela, eta ezarritako neurri zuzentzaileak, baleude, eta ingurumen-eskakizun guztiak betetzen dituztela dioen egiaztagiria, horretarako eskumena duen teknikariak sinatua.

— Akreditaziorako Erakunde Nazional batek (ENAC) emandako txostena, Ordenantza honetan ezarriak dauden zaraten inmisio- eta emisio-baloreak eta isolamendu baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena.

— Zerbitzua abian jartzeko Agiriak, Instalazio Egiaztagiriak edo, balegokio, industria segurtasunerako araudi espezifikoak bete behar dituzten instalazioei dagozkien Ziurtagiriak. Lanean jarri aurretik Eusko Jaurlaritzaren Industria sailen izapidetu behar dira.

— Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailaren Ebazpena, jarduera abian jartzeko osasun baimena ematen diona, edo balegokio, aurrekomunikazioa frogatzen duen agiria.

acústica, que contemple todos los focos capaces de originar transmisión de ruido y vibraciones, y en el que se justifique mediante los cálculos oportunos el cumplimiento de los aislamientos acústicos requeridos en la presente ordenanza.

8. Una vez realizadas las obras de insonorización y antes de proceder a la decoración y remate final del local, su titular deberá verificar que se cumplen los niveles de aislamiento exigidos en esta Ordenanza. El Ayuntamiento podrá solicitar la presentación de un informe acústico previo al remate final de las obras.

*Artículo 10. Tramitación de la actividad y puesta en funcionamiento.*

1. El trámite de licencias, comunicación previa o declaración responsable estará sujeto al procedimiento establecido en la «Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco» y, en su caso, a lo establecido en la «Ley 12/2012, de 26 de diciembre, de medidas urgentes de liberalización del comercio y de determinados servicios» y demás disposiciones legales que las complementen o sustituyan.

2. No obstante, con anterioridad a la presentación del proyecto o durante el trámite de consulta establecido en la Ley 3/1998, el Ayuntamiento podrá exigir que se acredite documentalmente, bajo la firma de un facultativo, que el local reúne las condiciones previas necesarias para que se pueda instalar la actividad que se pretende. Dichas condiciones son:

a) Respecto a los conductos de ventilación:

* Caudales de ventilación necesarios.

* Características constructivas o materiales de las chimeneas o conductos de evacuación existentes en el local.

* Sección mínima libre de cada conducto.

* Velocidad de circulación del aire evacuado, justificando que la transmisión de ruidos en las viviendas o locales por donde discurren los conductos no superará los valores máximos permitidos por esta Ordenanza.

* Certificado o informe de la estanqueidad de cada conducto.

b) Altura del local: Justificación de que la altura inicial del local es suficiente para dejarlo terminado a las alturas libres exigidas en esta Ordenanza una vez insonorizado y ejecutado el techo decorativo.

c) Accesibilidad: Justificación de que el acceso al local no presenta barreras urbanísticas o arquitectónicas infranqueables para el cumplimiento de las normas de accesibilidad.

3. Entre los documentos a presentar en la comunicación previa o declaración responsable antes del inicio de actividad, deben incluirse los siguientes:

— Certificación expedida por persona técnica competente que acredite que la actividad y/o las instalaciones se adecuan al proyecto constructivo y a la documentación técnica presentada y que cumple con las medidas correctoras impuestas, si las hubiere, y con todos los requisitos ambientales.

— Informe emitido por una Entidad nacional de acreditación (ENAC) que certifique el cumplimiento de las condiciones de aislamiento y los valores de emisión e inmisión de ruidos establecidos en esta Ordenanza.

— Documentos de Puesta en Servicio, Certificados de instalación o, en su caso, comunicaciones previas de las instalaciones sujetas al cumplimiento de reglamentos específicos de seguridad industrial y cuya puesta en funcionamiento debe ser previamente tramitada en el Departamento de Industria del Gobierno Vasco.

— Resolución del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco por el que se concede la Autorización sanitaria de funcionamiento o, en su caso, documento que acredite la comunicación previa.

EK\CV GAO-I-2015-02468

4. Establezimendu guztiek, kanpo aldean, identifikazio-ikur bat izan beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoaren abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuan, eta ondoreneko aldaketetan, ezarria dagoen ordutegien araberako sailkapenaren arabera sartuak dauden taldearen azalpenarekin.

5. Horrez gain, baimendua duen aforoaren berri ematen duen kartel bat ere izan beharko dute.

*11. artikulua. Tarteak.*

Trafikoaren zaratagatik edota jendea leku horietan pilatzen delako gaueko orduetan auzokideei eragozpenik ez sortzeko, establezimendu hauek elkarren artean gutxienez 25 metroko tartea izan beharko dute. Tarte hori 25 metroko erradioa duen esfera bat jarriz zehaztuko da, bere zentroa establezimendura sartzeko atearen/ateen erdian dagoela pentsatuta.

Era berean, arrazoi berberengatik, betetako eremutzat joko dira Bustinzuriko Errebala; Goikokalea; Olatzko Andre Mariaren plaza, 1etik 11ra; Erdikalea; Elizkalea, Jose de Artetxe kalea; Ildefonso Gurrutxaga kalea; Pablo VI auzoa eta Jose de Artetxe kalea, 12, 14 eta 16ko eraikinen, Artzubia etorbidea 2, 4, 6, 6-bis eta 8ko eraikinen eta Ildefonso Gurrutxaga kalea, 4, 6, 8, 10 eta 12ko eraikinen artean osatzen duten etxadia. Kale horietan eta aipatutako etxadian ez da establezimendu berririk irekitzeko baimenik emango, nahiz eta lokalera sartzeko atea ondoko kale edo plazaren batean egon.

Artikulu honetan eskatzen diren tarteak Bizigunetarako herri-lurrean kokatuak dauden jarduerentzat dira.

Tarteen betebehar hau ez zaie ezarriko familia giro soilekoak diren txokoei.

Salbuespen moduan, tarteen betebehar hori eta betetako eremuena ez zaie ezargarri izango udal jabetzako eraikinei, bere legezko eskumenak garatuz herriarentzat intereseko arrazoietan oinarritutako proiektuak baldin badaude. Salbuespen hori udalbatza osoak behar bezala hartutako erabakiaren bidez onartuko da.

*12. artikulua. Ikuskatzea eta zaintza.*

Udal honek, bere Ikuskatze Zerbitzuaren bidez, zaindu eta bermatuko du baimenen titularrek behar bezala betetzen dutela Ordenantza honetan zehaztutako guztia.

*13. artikulua. Zarataren aurkako neurri osagarriak.*

Behin establezimendua ireki ondoren eragozpenak sortzen dituela ikusiko balitz, jarduera espedientean tramitatutako proiektuan aurreikusitakoa baino zarata neurri handiagoa duelako, onartutako isolamendu akustikoa baino handiagoa jartzea eskatu ahal izango dio Udalak.

*14. artikulua. Irekitzeko eta ixteko orduak.*

Dagokion jarduera irekitzeko eta ixteko orduak Eusko Jaurlaritzaren Barne sailak uztailaren 16an emandako 296/1997 Dekretuan eta ondoreneko aldaketetan, edota horien ordezko beste edozein xedapenetan adierazitakoak izango dira. «1 A taldeko» establezimenduei dagokienez (eguneko ordutegia) irekitzeko ordua goizeko 07:00ak izango dira, eta ixtekoa, berriz, 23:00ak, gehienez.

*15. artikulua. Lizentzia iraungitzea.*

Ordenantza honetan sartutako jardueren funtzionamendu-lizentzia iraungitzat emango da horretarako Udalak espresuki emandako aitorpenaren ondoren, haiek benetan amaitu zirela egiaztatzen denetik BEDERATZI hilabetera, bai jarduera ekonomikoen zergan, edo haren ordezkoan, baja izan delako, edota Administrazioak askitzat ematen duen beste edozein bidetatik.

*16. artikulua. Arau-hausteak.*

Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas-jarduerak xedatzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legean eta

4. Cada establecimiento deberá disponer en su parte exterior un distintivo de identificación con indicación al grupo al que pertenecen de acuerdo con la clasificación según horarios establecida por el Decreto 296/1997, de 16 de diciembre de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y posteriores modificaciones.

5. Asimismo cada establecimiento deberá disponer de un cartel informativo del aforo autorizado.

*Artículo 11. Distancias.*

Con el fin de evitar molestias que pueden causar al vecindario en horas nocturnas, por ruido de tráfico o aglomeración de personas, la distancia mínima entre estos establecimientos será de 25 metros. Dicha distancia se medirá fijando una esfera de 25 m. de radio, cuyo centro esté situado imaginariamente en el centro de la(s) puerta(s) de acceso al establecimiento.

Asimismo, por los mismos motivos se consideran saturadas las calles: Bustinzuriko Errebala, Goikokalea, Olatzko Andre Mariaren plaza del n.º 1 al 11, Erdikalea, Elizkalea, Jose de Artetxe kalea, Ildefonso Gurrutxaga kalea, Paulo VI auzoa, y la manzana conformada por los edificios de Jose de Artetxe kalea, números 12, 14 y 16, Artzubia etorbidea, números 2, 4, 6, 6 bis y 8, e Ildefonso Gurrutxaga kalea, números 4, 6, 8, 10 y 12, no autorizándose la apertura de nuevos establecimientos en estas calles ni en la manzana citada aunque la puerta de acceso al local se sitúe en una calle o plaza contigua.

Las distancias exigidas en este artículo se refieren a las actividades situadas en Suelo Urbano Residencial.

No será aplicable el régimen de distancias para los Txokos exclusivamente de ámbito familiar.

De forma excepcional el régimen de distancias o zonas saturadas no será de aplicación a los edificios de propiedad municipal que integren proyectos que tengan como causa un interés municipal en el desarrollo de sus competencias legales. Dicha excepcionalidad será acordada por acuerdo plenario debidamente adoptado.

*Artículo 12. Inspección y vigilancia.*

Este Ayuntamiento, por medio de los Servicios de Inspección Municipal, vigilará y garantizará el debido cumplimiento de cuanto se dispone en esta Ordenanza.

*Artículo 13. Medidas adicionales contra el ruido.*

Si una vez abierto el establecimiento se comprueba que produce molestias al emitir niveles de ruido superiores a los previstos en el proyecto presentado, el Ayuntamiento podrá exigir un aislamiento acústico superior al aprobado.

*Artículo 14. Horarios.*

Los horarios de cierre y apertura para cada actividad serán los señalados en el Decreto 296/1997, de 16 de diciembre del Departamento de Interior del Gobierno Vasco y posteriores modificaciones, o cualquier otra disposición que los sustituya. En lo que respecta a los establecimientos del «Grupo 1 A» (horario diurno) la hora de apertura será a las 7:00 H y la de cierre 23:00 H, como máximo.

*Artículo 15. Caducidad de la licencia.*

La licencia de funcionamiento de las actividades incluidas en esta ordenanza se declarará caducada previa declaración municipal expresa, una vez transcurran NUEVE meses desde la comprobación del cese efectivo de las mismas, bien por haber causado baja en el impuesto de actividades económicas o el que le sustituya, o cualquier otro medio que la Administración considere suficiente.

*Artículo 16. Infracciones.*

Constituyen infracciones administrativas las acciones y omisiones tipificadas como tales en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de protección del Medio Ambiente del País

EK\CV GAO-I-2015-02468

arlo honetan ezarri beharreko gainerako sektore-araudietan xedatutako egintzak eta ez-egiteak joko dira arau-haustetzat. Lege horietan jasotako jokaerak aipatutako arauetan zehaztutako irizpideen arabera sailkatuko dira eta haietan xedatutakoaren arabera zigortuko.

Horrez gain, arau-haustetzat joko dira Ordenantza honetan jasotako zehaztapenak ez betetzeak ere. Arau-hauste horiek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke jendeari, horien ondasunei eta inguruari sortzen dioten eragozpen edota lasaitasun-galtzearen arabera, eta arau-haustea egiten duen pertsonaren jokabide errudun edo iruzurrezkoa ere kontuan izanik. Arau-hauste horiei ezarriko zaizkien zigorrak Agintarauan bertan jasoko dira.

*17. artikulua. Arau-hauste oso larriak.*

Arau-hauste oso larriak izango dira egoera honetan ezarri beharreko sektore-araudietan halakotzat jotakoak.

Era berean, Agintarau honi egindako arau-hauste oso larriak izango dira ondorengoak ere:

a) Ordenantza honi lotutako lan, proiektu eta jarduerak egitea hartarako baimen edo lizentziarik gabe, edota Ordenantza honetan jarritako baldintzak bete gabe egitea lan horiek.

b) Ingurumena edota auzokideen bizimodua kaltetuko duten zarata edo dardaren deskarga edo igorpena, onartua dagoen zarata maila 9 dB(A) baino gehiago gainditzen denean.

c) Udal agintaritzak zigilatutako mugatzaile eta erregistradore sonometrikoak trukatu, kaltetu edo eraldatzea.

d) Espedientea tramitatzeko eta dagozkion baimenak lortzeko beharrezko diren datuak ezkutatzea edo gezurtatzea.

e) Jarritako neurri zuzentzaileak edota zuhurtasunezko neurriak behin eta berriro ez betetzea.

f) Hiru arau-hauste larri egitea urte beteko epean.

*18. artikulua. Arau-hauste larriak.*

Arau-hauste larriak izango dira egoera honetan ezarri beharreko sektore-araudietan halakotzat jotakoak.

Era berean, Agintarau honi egindako arau- hauste larritzat joko dira honako hauek ere:

a) Aurreko atalean zehaztu direnak, baldin eta sortutako kaltea edo egonezina ez denean oso larritzat jotzen.

b) Onartutako zarata maila 3 dB(A) eta 9 dB(A) artean gainditzea.

c) Datuak ezkutatzea edota jardueren titularitarrei eskatuko zaizkien datuak ez ematea, eta Administrazioaren ikuskatze jarduera oztopatzea, era aktiboan edo pasiboan.

d) Hiru arau-hauste arin egitea urtebeteko epean.

*19. artikulua. Arau-hauste arinak.*

Arau-hauste arinak izango dira egoera honetan ezarri beharreko sektore-araudietan halakotzat jotakoak.

Era berean, Agintarau honi egindako arau- hauste arintzat joko dira honako hauek ere:

a) Aurreko artikuluetan arau-hauste larri edo oso larritzat jotakoak, arau-hauste horiek pertsonengan, bere ondasunetan edota ingurumenean duten eragin txikiagatik adierazitako kalifikazio hori emateko baldintzak gertatzen ez badira.

b) Onartutako zarata mailak 3 dB(A)raino gainditzea.

*20. artikulua. Zigorrak.*

1. Egoera hauetan ezarri beharreko sektoreko araudietan zehaztuak dauden arau-hausteak han bertan xedatutakoaren

Vasco, en la Ley 4/1995, de 10 de noviembre, de espectáculos públicos y actividades recreativas y demás normativa sectorial aplicable en esta materia. Las conductas tipificadas en estas leyes se clasificarán en virtud de los criterios establecidos en las indicadas normas y se sancionarán de conformidad con lo dispuesto en las mismas.

Además, se considerarán infracciones los incumplimientos de las determinaciones contenidas en la presente Ordenanza, las cuales se clasifican en muy graves, graves y leves, en función del grado de perturbación y alteración de la tranquilidad que se ocasiona a las personas, sus bienes o al medio, y en atención también al comportamiento culposo o fraudulento de la persona infractora. Las sanciones aplicables a estas infracciones se recogerán en la propia ordenanza.

*Artículo 17. Infracciones muy graves.*

Tendrán la consideración de infracciones muy graves las clasificadas como tal en la normativa sectorial de aplicación.

Asimismo, se consideran infracciones muy graves de la presente ordenanza las siguientes:

a) La iniciación o ejecución de las obras, proyectos y actuaciones sujetas a esta ordenanza sin licencia o autorización o sin ajustarse a las condiciones impuestas en base a la presente ordenanza.

b) La descarga o transmisión de ruidos o vibraciones que supongan un deterioro del medio ambiente o de la convivencia vecinal, considerándose como tales la superación en más de 9 dB(A) los niveles de ruido admitidos.

c) El trucaje, manipulación o alteración de los aparatos limitadores y registradores sonométricos precintados por la autoridad municipal.

d) La ocultación o falseamiento de los datos necesarios para la tramitación del expediente y obtención de las autorizaciones preceptivas.

e) El incumplimiento reiterado de las medidas correctoras o medidas cautelares impuestas.

f) La reiteración de tres infracciones graves en un año.

*Artículo 18. Infracciones graves.*

Tendrán la consideración de infracciones graves las clasificadas como tal en la normativa sectorial de aplicación.

Asimismo, se consideran infracciones graves de la presente ordenanza las siguientes:

a) Las contempladas en el artículo anterior, cuando el daño o perturbación generado no sea considerado como muy grave.

b) La superación en más de 3 dB(A) y hasta 9 dB(A) los niveles de ruido admitidos.

c) La omisión de datos y la negativa a facilitar los que sean requeridos a los titulares de actividades y la obstrucción, activa o pasiva, a la labor inspectora de la administración.

d) La reiteración de tres infracciones leves en un año.

*Artículo 19. Infracciones leves.*

Tendrán la consideración de infracciones leves las clasificadas como tal en la normativa sectorial de aplicación.

Asimismo, se consideran infracciones leves de la presente ordenanza las siguientes:

a) Las señaladas en los artículos anteriores como muy graves o graves, cuando por su escasa incidencia sobre las personas, sus bienes o el medio ambiente no se den los supuestos para dicha calificación.

b) La superación hasta 3 dB(A) de los niveles de ruido admitidos.

*Artículo 20. Sanciones.*

1. Las infracciones tipificadas en la normativa sectorial aplicable se sancionarán de conformidad con lo establecido en

EK\CV GAO-I-2015-02468

arabera zigortuko dira. Jar daitezkeen zigorren artean daude, besteak beste, instalazioak behin betiko ixtea edota haietan egiten diren jarduerak aldi baterako etetea.

2. Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hauste administratiboak egiteagatik ondoren zehazten diren isunak jarri ahal izango dira, eta halaber, zigor moduan jarri ahal izango da instalazioak behi betiko ixtea, edota goian zerrendatutako jarduerak aldi baterako etetea, honako muga hauekin:

a) Arau-hauste oso larrietan:

— 3.000 eurora arteko isuna edo lizentzia hogeita hamar (30) egunerako kentzea, zigorrak dirauen bitartean jarduera itxi edo etetearekin.

b) Arau-hauste larrietan:

— 1.500 eurora arteko isuna, edo lizentzia hamar (10) egunerako kentzea, zigorrak dirauen bitartean jarduera itxi edo etetearekin.

c) Arau-hauste arinetan:

— 750 eurora arteko isuna.

3. Zigorrak graduatu egingo dira, egoera bakoitzean kontuan izanik erantzulearen egoera zehatza, erruaren maila, errepikapena, parte-hartzea eta lortutako onura.

*21. artikulua. Jardunbidea.*

Ordenantza honetan jasotako arau-hauste guztiak zigortzeko erabiliko den jardunbidea Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko azaroaren 16ko 30/1992 Legearen bidez arautukako zigortzeko ahalmenari lotuko zaio, eta, xedapen bakoitzaren araubidearen jatorriaren arabera, E.A.E.en Herri Administrazioen zigortzeko ahalmena arautzen duen otsailaren 20ko 2/1998 Legea edota Zigortzeko Ahalmena gauzatzeko Araudia onartzen duen abuztuaren 4ko 1398/1993 E.D.a ezarriko da.

*22. artikulua. Zigorrek indarra galtzea.*

Ordenantza honetan adierazten diren arau-hausteek indarra galduko dute ondoren zehaztuko diren epeetan, gertakaria gertatu zenetik zenbatzen hasita:

— Urtebete, arau-hauste arinetan.

— Hiru urte, arau-hauste larrietan.

— Bost urte, arau-hauste oso larrietan.

Arau-hauste arinei jarritako zigorrak urte betera geratuko dira indarrik gabe, arau-hauste larriei jarritakoak bi urtera, eta arau-hauste oso larriei jarritakoak, hiru urtera. Indarr galtzeko epea zigorra jartzeko ebazpenak indar hartzen duen egunaren biharamonetik hasiko da zenbatzen.

*23. artikulua. Jarduerak burutzerakoan sortutako akatsak.*

1. Arau-haustea egiteagatik legokiokeen zigorraren kalterik gabe, eta interesatuari entzun ondoren, Udalaren Zerbitzu Teknikoek egiaztatuko balute akatsak gertatzen direla zerbitzuren batean, Udalak hilabete (1) eta sei (6) hilabete arteko epea jarriko du titularrak beharrezko diren neurri zuzentzaileak ezar ditzan, ezargarri zaion araudian xedatuta dagoenaren arabera, eta bereziki, Euskal Herriko Ingurumena babesteko 3/98 Lege Orokorrean zehaztua dagoenaren arabera.

2. Aurreko atalean adierazitakoaren ondorioetarako, Udal Zerbitzu Teknikoek, modu fakultatiboan, jardurean ezarri beharreko neurri zuzentzaile generikoak zehaztuko dituzte, bai eta ezarri beharreko izaera ebentual edo kautelarreko neurriak ere, hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko, administrazio-espedientea erabakitzen den bitartean, eta neurri zehatzak eta irtenbide teknikoak azaldu eta jardueraren titularrak garatzearen kalterik gabe.

la misma, pudiendo imponerse como sanción, entre otras, la clausura definitiva de las instalaciones o el cese temporal de las actividades desarrolladas en las mismas.

2. Por la comisión de infracciones administrativas previstas en esta ordenanza se podrán imponer las siguientes multas, pudiendo imponerse asimismo como sanción la clausura definitiva de las instalaciones o el cese temporal de las actividades desarrolladas arriba referenciadas con los siguientes límites:

a) Para las infracciones muy graves:

— Multa hasta 3.000 € o retirada temporal de la licencia hasta treinta (30) días con la consiguiente clausura o cese de la actividad mientras subsista la sanción.

b) Para las infracciones graves:

— Multa hasta 1.500 € o retirada temporal de la licencia hasta diez (10) días con la consiguiente clausura o cese de la actividad mientras subsista la sanción.

c) Para las infracciones leves:

— Multa hasta 750 €.

3. Las sanciones se graduaran atendiendo en cada caso concreto a las circunstancias concretas del responsable, grado de culpa, reiteración, participación y beneficio obtenido.

*Artículo 21. Procedimiento.*

El procedimiento sancionador en todas las infracciones reguladas en esta Ordenanza se ajustará a los principios de la potestad sancionadora regulados en la Ley 30/1992 de 16 de noviembre, de Régimen Jurídico de las AA.PP. y del Procedimiento Administrativo Común y según cual sea la procedencia normativa de cada una de las disposiciones se aplicará la ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las AA.PP. de la C.A.P.V. o el R.D. 1398/1993 de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento para el ejercicio de la potestad sancionadora.

*Artículo 22. Prescripciones.*

Las infracciones al que se refiere la presente Ordenanza prescribirán en los siguientes plazos, contados desde la comisión del hecho:

— Un año en caso de infracciones leves.

— Tres años en caso de infracciones graves.

— Cinco años en caso de infracciones muy graves.

Las sanciones impuestas por faltas leves prescribirán al año, las impuestas por falta grave a los dos años, y las impuestas por faltas muy graves a los tres años. El plazo de prescripción se computará desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por que se impone la sanción.

*Artículo 23. Deficiencias en el ejercicio de la actividades.*

1. Sin perjuicio de la sanción que corresponde en caso de infracción y previa audiencia al interesado, el Ayuntamiento en caso de comprobación por los Servicios Técnicos Municipales de la existencia de deficiencias en una actividad señalará un plazo entre uno (1) y seis (6) meses, para que el titular introduzca en la instalación las medidas correctoras necesarias, de conformidad con lo establecido en la reglamentación normativa aplicable, y especialmente, lo señalado en la Ley 3/98, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

2. A los efectos del apartado anterior, los Servicios Técnicos Municipales señalarán, facultativamente, las medidas correctoras genéricas a introducir en la actividad, así como las medidas de carácter eventual o cautelar a aplicar, para evitar en su caso la producción de molestias a terceros, en tanto se resuelve el expediente administrativo, y sin perjuicio de que las medidas concretas y soluciones técnicas deban ser expuestas y desarrolladas por el titular de la actividad.

EK\CV GAO-I-2015-02468

*Lehenengo xedapen gehigarria.*

Ordenantza hau indarrean jartzen den unean funtzionatzen ari diren establezimenduek ordenantza honen zehaztapenetara egokitu beharko dute jardueraren eraberritze edo handitzeren bat egin behar dutenean, eta ordenantzaren eskakizunak bete beharko ditu eraberritze, handitze edo aldaketa horrek eragindako zatiak. Eraberritze, handitze edo aldaketa obretan irisgarritasun baldintzak eta EKTren baldintzak betetzeari dagokionez, «Irisgarritasunaren sustapenerako abenduaren 4ko 20/1997 Legeko» 4.4 artikuluan eta 1. zatiko 2. artikuluan xedatutakoa eta EKTren aplikazioko irizpide orokorrak bete beharko dira.

Dena dela, Udalak ordenantza hau establezimenduaren beste zati batzuetan edo establezimendu osoan bete dadila eskatu ahal izango du, beharrezko dela iritziko balio. Era berean, egokitze hori eskualdatzea edo titularitza aldaketa gertatzen denean egin dadila ere eskatu ahal izango du, baimen berria eman baino lehen.

*Bigarren Xedapen Gehigarria.*

Udalak 2005eko abenduaren 1ean onartu zuen Ostalaritza eta Aisialdi jardueretara bideratutako establezimenduak jartzea arautzen zuen udal ordenantza indarrean sartu aurretik funtzionatzen ari ziren jarduerek, isolamendu akustiko handiagoa behar badute, jendearentzako zonaldearen altuera librea 2,50 metrora jaitsi ahal izango dute, eta 2,20 metrora jaistea ere onartu ahal izango da, habe edo instalazioen zintzilikario edo horien antzeko elementu berezietan.

*Hirugarren Xedapen Gehigarria.*

Jarduera batek ez balitu beteko gutxieneko isolamenduaren baldintzak edo ordenantza honetan zehaztua dagoen beste betekizunen bat, Udalak establezimendu horren kategoria jaitsi ahal izango du, jarri zaion kategoria berriarekin bateragarriak ez diren alderdiak kenduz.

*Laugarren Xedapen Gehigarria.*

Establezimenduen arteko tartearen edo betetzat jotako guneen jardunbidea ez zaie ezarriko Ordenantza hau indarrean jartzerakoan jadanik jarriak dauden establezimenduei, haiek kokatuak dauden eraikina eraitsi eta berirro eraikitzearen ondorioz, edota eraberritze-lan edo birgaitze integralengatik, jarduera hori itxi eta desmantelatu beharrean aurkitzen badira, beti ere titularrak espresuki jakinarazten badio hori udal agintaritzari, eta establezimendu berriaren kokapena eta beharrezko azpiegiturak espresuki jarriak baldin badaude eraikin berriaren exekuzio-proiektuan edota birgaitze-proiektuan.

Edonola ere, kasu hauetan establezimendu berri moduan hartuko dira ordenantza hau betetzearen ondorioetarako, eta hura berriro funtzionamenduan jartzeko, jarduera-lizentzia eta lanetarako lizentzia tramitatu beharko dira, edota aurrekomunikazioa edo erantzukizunpeko aitorpena, balegokio.

*Bosgarren Xedapen Gehigarria.*

Ordenantza honetan aurreikusia ez dagoen guztirako, beste Ordenantza partikular batzuetan xedatua dagoena hartuko da kontuan, eta sektoreko araudien eta maila handiagoko lege-xedapenetako zehaztapenak beteko dira.

*Azken Xedapena.*

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunaren ondorengo lehen lanegunean jarriko da indarrean ordenantza hau.

Udalak Ordenantza hau betetzeko eskatu ahal izango die ordenantza hori indarrean jarriko den unean establezimendua funtzionatzen jartzea tramitatzen ari direnei.

*Xedapen indargabetzailea.*

Indargabetuta geratuko da Azpeitiko Udalbatzak 2005eko abenduaren 1ean egindako bilkuran onartutako Ostalaritza eta Aisialdi Jarduerak dituzten Establezimenduak jartzea arautuko

*Disposición adicional primera.*

Los establecimientos en funcionamiento a la entrada en vigor de la presente Ordenanza deberán adecuarse a sus determinaciones cuando pretendan realizar alguna reforma o ampliación de la actividad, aplicándose sus exigencias a la parte afectada por la reforma, ampliación o modificación. En cuanto al cumplimento de las condicones de accesibilidad y las del CTE en las obras de reforma, ampliación o modificación se estará a lo dispuesto en el artículo 4.4 de la «Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad», y al artículo 2 de la Parte 1 más los criterios generales de aplicación del CTE.

No obstante, el Ayuntamiento podrá exigir la aplicación de esta Ordenanza a otras partes del establecimiento e incluso a su totalidad si en función de sus características lo considera necesario. Asimismo podrá exigir la acomodación cuando se produzca un traspaso o cambio de titularidad, como requisito previo a la nueva autorización.

*Disposición adicional segunda.*

Las actividades en funcionamiento anteriores a la entrada en vigor de la Ordenanza municipal reguladora de la instalación de establecimientos destinados a hostelería y actividades recreativas aprobada por el Ayuntamiento con fecha 1 de diciembre de 2005, que requieran unos niveles mayores de aislamiento acústico, podrán reducir la altura libre de la zona pública a 2,50 m., admitiéndose 2,20 m. en elementos singulares como cuelgues de vigas o instalaciones y otros similares.

*Disposición adicional tercera.*

Si alguna actividad no cumpliese con la condición de aislamiento mínimo o algún otro requisito establecido por esta ordenanza, el Ayuntamiento podrá rebajar la categoría del establecimiento eliminando los aspectos no compatibles con la nueva categoría asignada.

*Disposición adicional cuarta.*

El régimen de distancias o zonas saturadas no será de aplicación a los establecimientos existentes a la entrada en vigor de esta Ordenanza, que por razones de derribo y nueva construcción del edificio donde se alberga, o por obras de reforma o rehabilitación integral, se vean obligados al cierre y desmantelamiento de su actividad, siempre y cuando su titular lo notifique expresamente a la autoridad municipal y la ubicación del nuevo establecimiento y sus infraestructuras necesarias estén recogidas expresamente en el proyecto de ejecución del nuevo edificio o proyecto de rehabilitación.

No obstante, estos casos estarán considerados como nuevos establecimientos a efectos del cumplimiento de la presente ordenanza, debiendo tramitarse la licencia de obras y de actividad o comunicación previa o declaración responsable, en su caso, para su puesta en funcionamiento.

*Disposición adicional quinta.*

En todo cuanto no se contempla en la presente Ordenanza se estará a lo dispuesto en otras Ordenanzas particulares, y a las determinaciones de normativas sectoriales y disposiciones legales de rango superior.

*Disposición final.*

La presente ordenanza entrará en vigor al día siguiente hábil al de su publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

El Ayuntamiento podrá exigir el cumplimiento de la presente Ordenanza a los establecimientos que en el momento de su entrada en vigor estén tramitando su puesta en funcionamiento.

*Disposición derogatoria.*

Queda derogada la Ordenanza municipal reguladora de la instalación de establecimientos destinados hostelería y actividades recreativas aprobada por el Ayuntamiento Pleno en

duen Udal Ordenantza, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2006ko otsailaren 22an argitaratu zena (36. zenbakia).

Azpeitia, 2015eko martxoaren 13a.—Eneko Etxeberria Bereziartua, alkatea. (2468)

sesión celebrada el día 1 de diciembre de 2005 y publicada en el Boletin Oficial de Gipuzkoa n.º 36 de fecha 22 de febrero de 2006.

Azpeitia, a 13 de marzo de 2015.—El alcalde, Eneko Etxeberria Bereziartua. (2468)

EK\CV GAO-I-2015-02468